BERGARAKO UDALAk konpromisoa hartzen du belar artifizialezko zelai bat eraikitzeko, BERGARA KIROL ELKARTEA BKErekin hitzartutako 11ko futbolerako arauzko neurriekin, eta gaur egun Agorrosin futbol-zelaia dagoen lekuan. Obrak hainbat fasetan gauzatuko dira, eta 1. fasearen gutxieneko edukia hauxe izango da:

- Belar artifizialezko joko-zelaia egokitu, behar bezala argiztatua eta itxita.
- Atezainentzat, belar artifizialezko entrenamendu-eremu bat egokitu.
- Eremu osorako ureztatze-sistema instalatu.

*En ningún caso el acuerdo que se adopte para mantener el uso exclusivo a favor de BERGARA KIROL ELKARTEA BKE podrá suponer a éste el desembolso de cantidad alguna.*

*En todo caso de enajenación del terreno a terceros, una vez materializada la donación y durante el plazo de vigencia del derecho de uso, el AYUNTAMIENTO DE BERGARA deberá contar con el permiso previo y expreso de BERGARA KIROL ELKARTEA BKE. Asimismo el adquiriente se subrogará a todos los efectos en las condiciones del presente Convenio.*

*El AYUNTAMIENTO DE BERGARA asumirá exclusivamente los gastos notariales y de registro, así como el impuesto municipal sobre el incremento de valor de los bienes de naturaleza urbana y cualquier otro impuesto de carácter municipal que la transmisión pudiera suponer.*

*Tercera.- Obras a realizar por el AYUNTAMIENTO DE BERGARA.*

*El AYUNTAMIENTO DE BERGARA se compromete a realizar las obras de construcción de un campo de césped artificial de dimensiones reglamentarias para fútbol 11 y acordadas con BERGARA KIROL ELKARTEA BKE, en los terrenos que en la actualidad ocupa el Campo de fútbol de Agorrosin. La ejecución de las obras se realizará por fases, siendo el contenido mínimo de la Fase 1 el siguiente:*

- *Habilitar el campo de juego de hierba artificial debidamente iluminado y confinado.*
- *Habilitar una zona de entrenamiento de porteros con hierba artificial.*

Horretarako, Udalak data-mugarri hauek planteatzen ditu:

1. 2019. urtean, egungo Agorrosin futbol-zelaiaren eremua berrantolatzeko exekuzio-proiektua enkargatu. Proiektu hori idatzita egon beharko da 2020ko maiatzaren 31 baino lehen. Hala ere, urte hau amaitu aurretik amaitzeko ahaleginak egingo dira.

Proiektu hori idazteko, aintzat hartuko da 2017ko ekainean Izaskun Larzabal andreak idatzitako aurreproiektua —Hitzarmen honekin batera doa, II. Eranskin gisa—, eta, edonola ere, ezinbestekoa izango da futbol-zelaia belar artifizialezkoa izatea, argiteria artifizialarekin eta atezainentzako berotze-eremuarekin.

Proiektuko obrak fasetan banatuko dira, eta BERGARAKO UDALAk berariazko konpromisoa hartzen du 1. fasean futbol-zelaia, argiteria artifiziala eta atezainen berotze-eremua egiteko.

Edonola ere, obren lehen fasea ezingo da hasi 2023ko ekainaren 30a baino geroago.

2. Udalak udal-aurrekontuetan gorde egin beharko ditu 1. faseari ekiteko beharrezko kopuruak; horiek batuta, gutxienez honako kopuruetara iritsi beharko dira:

a. 2021eko ekitaldian: 800.000 €

b. 2022ko ekitaldian: beste 100.000 €

c. 2023ko ekitaldian: beste 100.000 €

- *Instalación de sistema de riego para todo el ámbito.*

*Para ello el Ayuntamiento plantea los hitos que a continuación se detallan:*

*1. En el año 2019, encargo del Proyecto de Ejecución para la reorganización del área que ocupa el actual Campo de fútbol de Agorrosin. Dicho Proyecto deberá de estar redactado antes del 31 de mayo de 2020. No obstante, se intentará que esté redactado antes de que finalice el año en curso.*

*En la redacción de dicho Proyecto se tomará en consideración el avance/anteproyecto redactado en el mes de junio de 2017 por doña Izaskun Larzabal, recogido como Anexo II en el presente Convenio, y en todo caso, en la redacción de dicho Proyecto será vinculante el establecimiento de un campo de fútbol de hierba artificial, iluminación artificial y de una zona de calentamiento de porteros.*

*Las obras incluidas en el Proyecto serán faseadas, y el AYUNTAMIENTO DE BERGARA adquiere el compromiso expreso de que en la Fase 1 se ejecuten el campo de fútbol, la iluminación artificial y la zona de calentamiento de porteros.*

*El inicio de la primera fase de las obras no tendrá lugar en todo caso más allá del 30 de junio de 2023.*

*2. El Ayuntamiento reservará en sus presupuestos municipales las cantidades que procedan para la ejecución de la Fase I, de forma que sumen cuando menos las siguientes cantidades:*

*a. Ejercicio 2021: La cantidad de 800.000 €*

*b. Ejercicio 2022: La cantidad adicional de 100.000 €*

*c. Ejercicio 2023: La cantidad adicional de 100.000 €*

Bergarako Udala

Izendatutako kopuru metatua 1. faseko kontrata bidezko exekuzio-aurrekontura iristen denean (BEZa barne), Udalak nahitaez exekutatu egin beharko du fase hori. Zenbateko hori biltzeko, aukera egongo da Hitzarmen honetatik kanpoko hirugarren pertsonen finantzaketa eransteko.

Proiektua idazteko esleitu beharreko kopurua ez zaio, inolaz ere, 1. fasea exekutatzeko behar denari kenduko.

3. Kanpotik finantzaketa handirik edo behar adinakorik lortzen ez bada 1. fasea 2021. urtea baino lehen amaitzeko eta obra udal-baliabideak soilik (edo batez ere) erabiliz exekutatu beharra badago, 2023ko ekaina finkatzen da futbol-zelai hori amaitzeko muga-eguntzat.

4. 1. fasea exekutatzeko eta instalazioak eskura jartzeko obra-lizitazioaren adjudikazio-kontratuan ezarritako epea betetzen ez bada, eta hori BERGARAKO UDALAri, berorri atxikitako edo berorren mendeko zuzenbide publiko nahiz pribatuko erakundeei edo enpresa kontratistari egotzi dakizkiekeen arrazoiengatik izan bada, BERGARA KIROL ELKARTEA BKEren aldeko penalizazioa sortuko da, hain zuzen ere 136 eurokoa atzerapen-egun bakoitzeko, eta instalaziook BERGARA KIROL ELKARTEA BKEren eskura jartzen diren arte kontatuta (gehienezko muga 20.000 euro izanik). Alabaina, horrek ez du inola ere BERGARAKO UDALA salbuetsiko proiektua exekutatzeko betebeharra betetzetik.

*En el momento en que la acumulación del importe consignado, al que podrá añadirse financiación de terceras personas ajenas al presente Convenio, alcance el presupuesto de ejecución por contrata (IVA incluido) de la Fase 1, el Ayuntamiento deberá obligatoriamente ejecutar dicha Fase 1.*

*La cantidad a imputar para la redacción del Proyecto en ningún caso se detraerá de la correspondiente a la ejecución de la Fase I.*

*3. En el caso en que no se lograra una financiación externa importante y/o suficiente para finalizar la ejecución de la Fase I en el año 2021, y la obra tuviera que ejecutarse, únicamente o casi en su totalidad, con recursos municipales, se establece la fecha límite de junio de 2023, para la finalización del citado campo.*

*4. En caso de incumplimiento del plazo que se estipule en el contrato de adjudicación de la licitación de la obra correspondiente a la ejecución de la Fase 1 y puesta a disposición de las instalaciones, por causa imputable al AYUNTAMIENTO DE BERGARA, a entidades de derecho público o privado, vinculadas o dependientes del mismo, o a la empresa contratista, se devengará a favor de BERGARA KIROL ELKARTEA BKE una penalización por importe de 136 euros por cada día de retraso y a contar hasta la puesta a disposición de las instalaciones a favor de BERGARA KIROL ELKARTEA BKE (con un máximo de 20.000 euros), lo que no eximirá en ningún caso al AYUNTAMIENTO DE BERGARA de la obligación de cumplir con la ejecución del Proyecto.*

5. Egungo Agorrosin futbol-zelaiaren eremua berrantolatzeko exekuzio-proiektuaren gainerako zatiari dagokionean, BERGARAKO UDALAk bere behar, lehentasun eta ekonomia-baliabideen arabera eta egokiak iruditzen zaizkion epeetan egingo du. Edonola ere, dohaintza-xede den Agorrosin eremuan BERGARAKO UDALAk planteatuko dituen lehen hobekuntza-jarduketetan, futbol-zelaiko aldagelen aldi bereko exekuzioa sartu beharko da. Bestalde, dohaintza-xede den Agorrosin eremuan BERGARAKO UDALAk planteatuko dituen bigarren jarduketetan, futbol-zelaiko harmailen aldi bereko exekuzioa sartu beharko da.

*5. El AYUNTAMIENTO DE BERGARA desarrollará el resto del Proyecto de reorganización del área que ocupa el actual campo de fútbol de Agorrosin, en base a sus necesidades, prioridades y disponibilidad económica, en los plazos y fechas que considere oportuno. En todo caso, las primeras actuaciones de mejora que se planteen por el AYUNTAMIENTO DE BERGARA en el área de Agorrosin objeto de donación contemplarán la ejecución simultánea de los vestuarios del campo de fútbol. Por su parte, las segundas actuaciones que se planteen por el AYUNTAMIENTO DE BERGARA en el área objeto de donación contemplarán la ejecución simultánea del graderío del campo de fútbol.*

6. BERGARAKO UDALAk adierazten du Hitzarmen honen ondoriozko gastuekin lotutako gestioak, justifikazioak eta gainerako jarduketek aurrekontuen indarreko legerian xedatutakoa betetzen eta bete beharko dutela, administrazio publiko sinatzailearentzako finantza-konpromisoak hartzen dituztelako barne.

BERGARAKO UDALAK halaber adierazten du bere gain hartutako konpromiso finantzarioak finantzarioki jasangarriak direla, eta sinatzaileek badutela nahikoa gaitasun Hitzarmenaren indarraldian zehar horiei erantzuteko.

Sinatzaileek bere gain hartzen dituzten ekarpen finantzarioak ezingo dira izan, inola ere, Hitzarmena gauzatzeagatik eratorritako gastuak baino handiagoak.

*6. El AYUNTAMIENTO DE BERGARA manifiesta que la gestión, justificación y resto de actuaciones relacionadas con los gastos derivados del presente Convenio, por incluir compromisos financieros para la Administración Pública firmante, se ajustan y ajustarán a lo dispuesto en la legislación presupuestaria vigente.*

*El AYUNTAMIENTO DE BERGARA manifiesta igualmente que los compromisos financieros asumidos son financieramente sostenibles, teniendo los firmantes la necesaria capacidad para financiar los asumidos durante la vigencia del Convenio.*

*En ningún caso las aportaciones financieras que se comprometan a realizar los firmantes podrán ser superiores a los gastos derivados de la ejecución del Convenio.*

BERGARA KIROL ELKARTEA BKEk BERGARAKO UDALAri laguntzeko konpromisoa hartzen du, obrok egiteko finantzaketa bilatzeko.

*BERGARA KIROL ELKARTEA BKE se compromete a colaborar con el AYUNTAMIENTO DE BERGARA en la búsqueda de financiación para la ejecución de las obras.*

Bergarako Udala

Laugarrena.- Finkei buruzko garbiketaren, mantentzearen eta beste jarduketa batzuen alorreko zehaztapenak

Lehen Estipulazioan deskribatu den dohaintzaren eskritura publikoa egin bitartean, 2018ko otsailaren 2an izenpetu zuten «Agorrosin estadioaren eta Ipintza futbol-zelaiaren erabilera eta mantentzea arautzeko hitzarmena» dokumentuan bere gain hartu zituzten eginbeharrak bete beharko dituzte aldeek.

Behin eskritura eginda eta dohaintza burututakoan, BERGARAKO UDALAk –dohaintzan emandako finken jabea izanik– bere gain hartuko ditu zeditutako erregistro-finken mantentze-kostuak, bai eta haiei dagozkien kontsumo guztien ordainketa ere.

Une horretan azkendu eta ekonomikoki likidatuko da 2018ko otsailaren 2an izenpetutako hitzarmena, eta bertan aipatzen diren kopuruak ordaindu edo itzuli beharko dizkiote aldeek elkarri, iragandako denboraren arabera behar bezala hainbanatuta.

*Cuarta.- Determinaciones en orden a la limpieza, mantenimiento, y otras actuaciones en relación con las fincas.*

*Hasta tanto se proceda al otorgamiento de la escritura pública de la donación descrita en la Estipulación Primera, las partes darán cumplimiento a las obligaciones por ellas asumidas en el "Convenio para regular el uso y mantenimiento del Estadio de Agorrosin y el Campo de Fútbol Ipintza", suscrito con fecha 2 de febrero de 2018.*

*Otorgada dicha escritura y perfeccionada la donación, el AYUNTAMIENTO DE BERGARA, en su condición de propietario de las fincas donadas, asumirá los costos de mantenimiento de las fincas registrales cedidas, así como el pago de todos los consumos correspondientes a las mismas.*

*En dicho momento se procederá a la extinción y liquidación económica del Convenio suscrito con fecha 2 de febrero de 2018, abonando o devolviéndose las partes las cantidades a que se refiere el mismo, debidamente prorrateadas en función del tiempo transcurrido.*

Bosgarrena. - Hitzarmenaren indarraldia eta azkentzea

Hitzarmen honek formalizazio-datatik aurrera izango ditu eraginak, harik eta bere helburua osatzen duten jarduketak gauzatzen diren arte eta, kasu guztietan, formalizazio-datatik gehienez ere lau (4) urte iragan arte.

Hala ere, aipatu den iraupen-epea iraungi baino lehen, edozein unetan aldeek erabaki ahal izango dute, aho batez, Hitzarmena beste lau (4) urterako luzatzea, edo bestela azkentzea.

*Quinta.- Vigencia y extinción del Convenio.*

*El presente Convenio produce efectos desde la fecha de su formalización y mantendrá sus efectos en tanto se dé cumplimiento a las actuaciones que constituyen su objeto y, en todo caso, un plazo máximo de cuatro (4) años desde dicha fecha de formalización.*

*No obstante lo anterior, en cualquier momento antes de expirar la duración arriba referenciada, las Partes podrán acordar por unanimidad la prórroga del*

Hitzarmen honen ondorioetarako, berorren helburua betetzat joko da proiektua Hitzarmen honetan azaldutako baldintzetan exekutatu denean, proiektuaren 1. fasea gutxienez exekutatuta, betiere aintzat harturik –dagokionean– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52.2 artikuluan likidazioaren ondorioetarako xedatutako arauak.

Seigarrena. - Jarraipen Batzordea

Jarraipen Batzordea eratzea erabakitzen dute aldeek. Lau (4) kide izango ditu: bi (2) BERGARAKO UDALAk izendatuak, eta bi (2) BERGARA KIROL ELKARTEA BKEk izendatuak. Batzordekideok, ordezkatzen duten erakundean, erabakitzeko eta betearazteko behar adinako ahalmena izan beharko dute.

Hauek izango dira Jarraipen Batzorde horren egitekoak:

- Hitzarmena betetzen dela zaintzea, eta interpretazioan, betetzean eta exekuzioan sortzen diren zalantzak argitzea.

- Hitzarmenaren betetze- eta exekuzio-maila aztertzea.

- Aldeek kasu bakoitzean erabakitzen duten beste edozein cginkizun.

Jarraipen Batzordea hiru hilean behin bilduko da, BERGARAKO UDALAren egoitzan.

Jarraipen Batzordeak berak zehaztuko ditu barneko funtzionamendu-arauak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren baitan.

*Convenio hasta cuatro (4) años adicionales, o su extinción.*

*A efectos del Convenio, se considerará cumplido el mismo cuando el Proyecto se haya ejecutado en los términos expuestos en el presente Convenio, ejecutándose cuando menos la Fase 1 del mismo, teniendo en cuenta, en su caso, las reglas dispuestas en el artículo 52.2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público a efectos de liquidación.*

*Sexta.- Comisión de Seguimiento.*

*Las partes convienen en constituir una Comisión de Seguimiento que estará integrada por cuatro (4) miembros, de los cuales dos (2) serán designados por el AYUNTAMIENTO DE BERGARA y dos (2) serán designados por BERGARA KIROL ELKARTEA BKE, personas que deberán tener capacidad decisoria y ejecutiva suficiente en el seno de sus respectivas representadas.*

*Dicha Comisión de Seguimiento se encargará de:*

*- Velar por el cumplimiento del Convenio, resolviendo las dudas que pudieran surgir en cuanto a su interpretación, cumplimiento y ejecución; y*

*- Analizar el cumplimiento y grado de ejecución del Convenio, y*

*- Cualquier otra función que las Partes determinen en cada caso.*

*La Comisión de Seguimiento se reunirá cada trimestre en la sede del AYUNTAMIENTO DE BERGARA.*

*La propia Comisión de Seguimiento establecerá sus normas internas de funcionamiento dentro del marco dispuesto en el artículo 15 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.*

Bergarako Udala

Jarraipen Batzordea bera izango da Hitzarmenari jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko bitartekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen ondorioetarako.

*La Comisión se considerará el mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del Convenio a los efectos de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.*

Zazpigarrena. - Kontratua suntsiaraztea

1. Betebeharrak azkentzeko arrazoi orokorrez gain, kasu hauetan ere azkenduko da Hitzarmena:

(i) Aldeek elkarrekin adostuta erabakitzen dutenean.

(ii) Laugarren Estipulazioan aurreikusitako lau (4) urteko gehieneko epea edo berorren luzapena iragaten denean.

(iii) Hitzarmena sinatu ondoren 3 urteko epea igarotzen denean exekuzio-proiektua formalki onartu gabe eta Hirugarren Estipulazioan aipatutako obrak kontratatzeko espedientea hastea aurreikusita egon gabe. Halere, aldeek aukera izango dute luzapenak adosteko.

(iv) Hitzarmenean hartutako konpromisoak eta obligazioak betetzen ez dituenean aldeetako edozeinek. Kasu horretan, aplikatzekoak diren arau administratibo eta zibil orokorrak ezarriko dira.

Ez-betetzeetarako, berariazko arau gisa hau finkatu da: aldeetako bati egoztekoa den arrazoiren batengatik dohaintza burutzen ez bada, beste aldeak aukera izango du betetzea exijitzeko (dagozkion kalte-galerak jasota), edo bestela Hitzarmena suntsiarazteko; azken kasu honetan, sortutako kalte-galerei beste hauek ere gehituko zaizkie:

*Séptima.- Resolución del Convenio.*

*1. El Convenio se extinguirá, además de por las causas generales de extinción de las obligaciones, por las siguientes:*

*(i) Por mutuo acuerdo de las partes.*

*(ii) Por transcurso del plazo máximo de cuatro (4) años previsto en la Estipulación Cuarta, o de su prórroga.*

*(iii) Por transcurso del plazo de 3 años desde la suscripción del presente Convenio sin aprobarse formalmente el Proyecto de Ejecución ni estar prevista la iniciación del expediente de contratación de las obras referidas en la Estipulación Tercera. Ello sin perjuicio de las prórrogas que, de común acuerdo, pudieran pactar las partes.*

*(iv) Por incumplimiento por cualquiera de las partes de las obligaciones y compromisos asumidos en virtud del Convenio, con aplicación de las normas generales administrativas y civiles de aplicación.*

*Como normas específicas en materia de incumplimiento, en el supuesto de que la donación no llegue a perfeccionarse por causa imputable a una de las partes, la otra podrá, además de optar por exigir su cumplimiento, con el devengo de la indemnización de daños y perjuicios que proceda, podrá exigir la resolución del Convenio, devengándose, acumulativamente a los daños y perjuicios causados:*

- Ez-betetzea BERGARA KIROL ELKARTEA BKEri egoztekoa bada eta Hitzarmena suntsiaraztea erabakitzen bada, 2018ko otsailaren 2an sinatutako «Agorrosin estadioaren eta Ipintza futbol-zelaiaren erabilera eta mantentzea arautzeko hitzarmena» azkentzeaz gain, penalizazioa sortuko da Udalaren alde, hitzarmen horri jarraikiz honako hitzarmen hau izenpetu denetik emandako dirulaguntzaren parekoa.

- Ez-betetzea BERGARAKO UDALAri egoztekoa bada eta Hitzarmena suntsiaraztea erabakitzen bada, Udalak ordaindu egin beharko ditu Hitzarmen hau sinatzeko BERGARA KIROL ELKARTEA BKEri sortu zaizkion gastuak eta une horretara bitartean sortutako gainerakoak.

(v) Hitzarmena deuseztzat jotzen duen erabaki judizial batez.

2. Edozein arrazoirengatik Hitzarmen hau suntsitzen denean, errespetatu egin beharko dira bi aldeek aurrez izenpetutako hitzarmen hauek:

- 1982ko uztailaren 5ean sinatutako Hitzarmena, atletismo-pista egitekoa.
- 2006ko apirilaren 24an sinatutako Hitzarmena, minicstadioa instalatzekoa.

Zortzigarrena. - Hitzarmena aldatzeko araubidea

Hitzarmen hau aldatu ahal izateko, beharrezkoa izango da alderdi sinatzaileen aho-bateko adostasuna.

- *En el caso de que el incumplimiento sea imputable a BERGARA KIROL ELKARTEA BKE y se opte por la resolución, adicionalmente a la extinción del "Convenio para regular el uso y mantenimiento del Estadio de Agorrosin y el Campo de Fútbol Ipintza", suscrito con fecha 2 de febrero de 2018, se devengará a favor del Ayuntamiento una penalización por un importe equivalente a la subvención otorgada en virtud de dicho Convenio desde la suscripción del presente.*

- *En el caso de que el incumplimiento sea imputable al AYUNTAMIENTO DE BERGARA y se opte por la resolución, el Ayuntamiento deberá abonar los gastos que se le hayan generado a BERGARA KIROL ELKARTEA BKE para la suscripción del presente Convenio y cuantos otros gastos se hayan realizado hasta ese momento.*

*(v) Por decisión judicial declarativa de la nulidad del Convenio.*

*2. Caso de que por cualquier motivo se resuelva este Convenio, se respetarán los términos de los siguientes convenios suscritos con anterioridad por ambas partes:*

- *El Convenio firmado el 5 de julio de 1982 para la construcción de una pista de atletismo.*
- *El Convenio suscrito el 24 de abril de 2006 para la instalación del miniestadio.*

*Octava.- Régimen de modificación del Convenio.*

*Para la modificación del presente Convenio se requerirá del acuerdo unánime de las partes suscribientes.*

Bergarako Udala

Bederatzigarrena. - Hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa

Hitzarmen honek bete egin beharko ditu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta ondorengoak. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea, berriz, ez da aplikagarria, berorren 9.2 artikulua aplikatuta, ondasun higiezinen gaineko negozio juridikoei buruzkoa da eta.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta ordenamendu juridiko administratiboaren arabera interpretatu eta garatuko da.

Hamargarrena. - Gatazkak konpontzea

Hitzarmen hau betetzeari buruz sor daitezkeen desadostasunen aurrean, aldeek konpromisoa hartzen dute elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzeko eskura dituzten bitarteko guztiak erabiltzeko –dagokionean, Seigarren Estipulazioan aurreikusitako Jarraipen Batzordean konponduko dira–. Gatazka sortzen bada, administrazioarekiko auzietako jurisdikzio-organoei egokituko zaie auzigaiak ezagutzea.

Horren fede emanez, aldeek Hitzarmenaren hiru (3) ale sinatu dituzte, alde bakarrean inprimatutako paper arrunteko orri guztietan eta Hitzarmena osatzen duten eranskinetan, goian adierazitako tokian eta datan.

*Novena.- Naturaleza y régimen jurídico del Convenio.*

*El presente Convenio queda sujeto a los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, no siéndole de aplicación la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por aplicación del artículo 9.2 de la misma, al versar sobre negocios jurídicos sobre bienes inmuebles.*

*El presente Convenio tiene naturaleza administrativa, rigiendo en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo.*

*Décima.- Resolución de conflictos.*

*Las partes se comprometen a solventar por todos los medios a su alcance, mediante el diálogo y la negociación, cuantas discrepancias pudieran surgir en lo que al cumplimiento de este Convenio se refiere, en su caso en el seno de la Comisión de Seguimiento prevista en la Estipulación Sexta. En caso de conflicto, el conocimiento de las cuestiones litigiosas que se originen corresponderá a los órganos jurisdiccionales contencioso-administrativos.*

*En fe de lo cual, las partes firman el Convenio en tres (3) ejemplares, en todas sus hojas de papel ordinario impresas en una sola cara, así como en los documentos anexos que forman parte del mismo, en el lugar y fecha arriba indicados.*

M. Elena Lete Garcia andrea

(BERGARAKO UDALAren izenean eta ordezkaritzan)

Iosu Elorza Alberdi jauna

(BERGARA KIROL ELKARTEA BKEren izenean eta ordezkaritzan)

*Dª Elena Lete García*

*(en nombre y representación del AYUNTAMIENTO DE BERGARA)*

*D. Iosu Elorza Alberdi*

*(en nombre y representación de BERGARA KIROL ELKARTEA BKE)*